**Ebazpena, Justizia Administrazioko zuzendariarena, Eibarko barruti judizialeko Justizia Administrazioko kidego orokorretako funtzionarioak bulego judizial, udalerrietako justizia-bulego eta Erregistro Zibileko bulego orokorretako lanpostu berrietara egokitzeko borondatezko berrantolaketaren behin betiko zerrenda onartzen eta argitaratzen duena.**

Justizia Administrazioko zuzendariaren 2026ko maiatzaren 26ko Ebazpenaren bidez onartu ziren Eibarko, Donostiako, Vitoria-Gasteizko eta Barakaldoko barruti judizialetako funtzionarioak adskribatzeko irizpideak eta egokitze-prozesuaren garapena.

Ebazpen horren 6. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Justizia Administrazioko zuzendariak 2026ko uztailaren 24ko Ebazpena eman zuen. Ebazpen horren bidez, lanpostu hutsak betetzeko eta egokitze-prozesuaren esparruan langileak borondatez berrantolatzeko prozesuan parte hartzera deitutako pertsonen zerrenda argitaratu zen, eta hiru egun balioduneko epea eman zitzaien parte hartzeko eskaerak aurkezteko.

Epe hori amaituta eta langileek egindako adierazpenak ikusita, honako hau

**EBAZTEN DUT**

**1. Artikulua.-** Administrazioko kidego orokorretako funtzionarioak bulego judizialetako, udalerrietako justizia-bulegoetako eta erregistro zibileko bulego orokorretako lanpostu berrietara egokitzeko prozesuaren barruan borondatezko berrantolaketa-fasean destinoa lortu duten karrerako funtzionarioen zerrenda onartzea eta argitaratzea (eranskinean).

**2. Artikulua.-** Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justiziako sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean.

MARIA DOLORES MOVILLA RIVAS

JUSTIZIA ADMINISTRAZIOKO ZUZENDARIA

Este documento es una representación del documento original electrónico, verificable en la **sede electrónica** mediante el **localizador** indicado al pie de página.
Dokumentu hau jatorrizko dokumentu elektronikoaren irudikapen bat da, **egoitza elektronikoan** egiaztagarria, orri-oinean adierazitako **lokalizatzailearen** bidez.

# LANGILEEN BERRANTOLAKETA

## LURRALDE HISTORIKOA: GIPUZKOA

### KUDEAKETA PROZESAL ETA ADMINISTRATIBOKO KIDEGOA

**BARRUTI JUDIZIALA: EIBAR**

**UDALERRIA: EIBAR**

| NAN | INTERESDUNA | | | ESLEITUTAKO LANPOSTUA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ***6737** | ROSA MARIA | ORTEGA | ORTEGA | 130020/1 | Kudeaketa PA- AAko IZEa | Lan arloa |
| ***8845** | ANA AMAYA | LÓPEZ | ALÁEZ | 130041/27 | Kudeaketa PA- AAko IZEa | Arlo Zibila eta Instrukzioarena |

### IZAPIDETZE PROZESAL ETA ADMINISTRATIBOKO KIDEGOA

**BARRUTI JUDIZIALA: EIBAR**

**UDALERRIA: EIBAR**

| NAN | INTERESDUNA | | | ESLEITUTAKO LANPOSTUA | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| ***1625** | MARIA DEL MAR | CAZURRO | CANAL | 140041/64 | Izapidetze - AAko IZEa | Arlo Zibila eta Instrukzioarena |